

## CONSULTA PREVIA SOBRE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA DEL TRÁFICO URBANO DEL MUNICIPIO DE BERGARA

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, ha establecido una serie de innovaciones en cuanto a la iniciativa legislativa de las administraciones públicas y la elaboración de reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de la ciudadanía y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Común de las Administraciones Públicas, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

*“1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

*a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*

*b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*

*c) Los objetivos de la norma.*

*d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.”*

El objetivo del Ayuntamiento de Bergara es aprobar la modificación de la ordenanza del tráfico urbano del municipio de Bergara. El objeto de esta modificación de ordenanza es que algunos artículos de la misma sean más fáciles de entender y al mismo tiempo recojan diversas situaciones que no estaban reguladas.

El Ayuntamiento de Bergara, al objeto de cumplir el procedimiento establecido por la Ley 39/2015, ha decidido llevar a cabo una consulta pública previa antes de la aprobación de la modificación de la ordenanza del tráfico urbano del municipio de Bergara.

### PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA

El Ayuntamiento de Bergara, mediante esta modificación de ordenanza, pretende que algunos artículos sean más fáciles de entender y que se subsanen ciertas deficiencias.

Mediante la pretendida modificación de la ordenanza, se adecúan 16 artículos y se añade el Anexo 1. Así:

- 1.- El artículo 1 se adecúa a la normativa actualmente vigente.
- 2.- En el artículo 4, se ha concretado más el "espacio suficiente para el paso de peatones".
- 3.- En el artículo 11, "en todas las calles de la villa" se ha sustituido por "el espacio residencial urbano".
- 4.- Se ha reescrito el artículo 12 a fin de responder más adecuadamente a las nuevas necesidades que están surgiendo en la localidad en los últimos años.
- 5.- Se ha reescrito el artículo 15, recogiendo con más detalle las posibilidades de aparcamiento de motos en aceras.

- 6.- En el artículo 16, se han añadido las excepciones de circulación en espacios peatonales.
- 7.- En el artículo 18, se han añadido las excepciones sobre el incumplimiento de señales semafóricas.
- 8.- Se ha reescrito el artículo 27 para concretar cuáles son las vías con prioridad peatonal. Así mismo, se contempla la posibilidad de instalar sistemas de control de acceso a dichas zonas, así como sus excepciones.
- 9.- En el artículo 28 se define mejor lo que es conducción temeraria y negligente.
- 10.- En el artículo 31, se recogen las condiciones de circulación de los vehículos de movilidad personal (VMP).
- 11.- En el artículo 32, se añade que, en aras a la seguridad de las personas menores, se recomienda la vigilancia de una persona adulta en las zonas de alta intensidad de tráfico.
- 12.- En el artículo 35 se añade que las actividades organizadas deberán obtener autorización previa.
- 13.- En el artículo 36 se define cuál ha de ser la anchura mínima de las vías de accesibilidad o zonas de paso libre.
- 14.- En el artículo 44 se le añade una excepción a la prohibición de reparar vehículos en la vía pública.
- 15.- En el artículo 48, se concreta cómo han de comportarse los agentes de la autoridad en situaciones de desacato.
- 16.- Corrección y concreción del artículo 50.
- 17.- Se añade el Anexo 1, en el que se concretan las zonas de prioridad peatonal y el carácter de cada una de ellas.

## **NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA**

En el punto anterior queda expuesto, básicamente, el motivo y necesidad de esta ordenanza. Concretamente, mediante esta modificación se pretende que algunos artículos sean más fáciles de entender y que se subsanen ciertas deficiencias.

Una vez finalizada la consulta previa, y con las aportaciones que deriven de la exposición pública realizada mediante la página web, el ayuntamiento elevará la ordenanza al Pleno de la Corporación Municipal para su aprobación. Una vez adoptado este acuerdo, se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el anuncio correspondiente a la aprobación y se abrirá un plazo de 30 días para la presentación de alegaciones, reclamaciones o sugerencias. A continuación, el ayuntamiento, dando respuesta a las alegaciones, reclamaciones o sugerencias presentadas en la exposición pública, dictará, si procede, la aprobación definitiva de la ordenanza. En caso de no presentarse alegaciones, reclamaciones o sugerencias, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente, una vez cumplimentados los trámites señalados.

## **OBJETIVOS DE LA NORMA**

Mediante la presente modificación de ordenanza se adecúa la ordenanza vigente al objeto de que algunos artículos sean más fáciles de entender y se subsanen ciertas deficiencias.

## **POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS, REGULATORIAS O NO REGULATORIAS**

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 56 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, y en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, esta normativa se someterá a exposición pública durante 30 días hábiles –a partir del día siguiente al

de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa–, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Una vez finalizado el plazo de exposición pública, se ha de adoptar el acuerdo definitivo correspondiente, resolviendo las reclamaciones presentadas y aprobando la redacción definitiva de la ordenanza recogida en el acuerdo provisional, su derogación o las modificaciones a que hubiera lugar. En caso de no haberse presentado reclamaciones, se considerará definitivamente aprobado el acuerdo hasta entonces provisional. El acuerdo definitivo, que será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, no entrará en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación y se haya cumplido el plazo establecido por el artículo 70-1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

En Bergara, a 18 de diciembre de 2025.



# TXOSTENA

## **GAIA: UDALERRIKO HIRI TRAFIKOKO ORDENANTZA ALDAKETA**

### **ERREFERENTZIA ZK: UDBU251202**

Begarako Udaltzaingoaren bulegoan, 2025 urteko abenduaren 2an, Udaltzainburuak txosten honekin, zera ADIERAZI NAHI DU:

Udalerriko Hiri Trafikoko Ordenantzaren azken aldaketa 2020 urtean egin zen (2025eko ekainak 18an GAOean argitaratua). Orduan 64. artikuluan jasotako arau-hauste arinen zenbatekoa aldatu zen.

Oraingoa aldiz Ordenantzaren azterketa sakon bat egin da, egun indarrean dagoen araudira egokituz eta hainbat artikulua berridatziz, ulertzeko errazagoak izateko helburuarekin. Bide batez arautu gabe zeuden hainbat egoera ere barneratu dira. Ondoren zehaztu dira artikulua bakoitzean egindako aldaketak:

- 1.- 1.artikulua egun indarrean dagoen araudira egokitu.
- 2.- 4.artikuluan "oinezkoek pasatzeko leku nahikoa" gehiago zehaztu da.
- 3.- 11.artikuluan "udalerriko edozein kale"ren ordez "bizitegi eremu-urbanoa" txertatu da.
- 4.- 12.artikuluaren berridazketa egin da azken urteetan herrian sortzen ari diren behar berriei modu egokiagoan erantzuteko.
- 5.- 15.artikuluaren berridazketa motorrek espaloietan aprakatzeko aukerak zehatzako zehaztuaz.
- 6.- 16.artikuluaren oinezkoen guneetan zirkulatzeko salbuespenak gehitu dira.
- 7.- 18.artikuluan semaforoko seinaleaz ez errespetatzearen inguruko salbuespenak gehitu dira.
- 8.- 27.artikuluaren berridazketa oinezkoentzako lehentasuna duten bideak zeintzuk diren zehazteko. Era berean gune horietara sartzeko sarbide-kontrol sistemak ezartzeko aukera aurrakusten da baita salbuespen kasuak ere.
- 9.- 28.artikulua ausarkeriaz eta zabarkeriaz gidatzea zer den hobeto zehazten da.
- 10.- 31.artikuluan mugikortasun pertsonaleko ibilgaluen (MPI) zirkulazio baldintzak jasotzen dira.
- 11.- 32.artikuluaren adingabeen segurtasunerako, heldu baten zaintza gomendatzen dela trafiko intentsitate handiko eremuetan gehitzen da.

12.- 35 .artikuluan jarduera antolatuek aurretiazko baimena izan beharko dutena txertatzen da.

13.- 36.artikuluan irisgarritasun-bide eta pasabide libreko guneen gutxieneko zabalera zein izan behar den zehazten da.

14.- 44 .artikuluan bide publikoan ibilgailuak konpontzeko debekuari squalbuespen bat gehitzen zaio.

15.- 48.artikuluan Agintaritzaren agenteei desmen egiteari dagokionean, horiek nola jokatu beharko dute zehaztu da.

16.- 50 .artikuluaren zuzenketa eta zehaztapena.

17.- 1 Eranskina txertatzea. Bertan oinezkoek lehentasuna duten gunek zehaztu dira eta horietako bakoitzaren izaera jaso da.

I Eranskinean zeaztu dira aldatutako artikulak

Dagozkion eraginak izan ditzan luzatzen dut honako hau.

Bergaran 2025eko abenduaren 3an

Ander Okiñena Perez de Albeniz  
Udaltzainburua

|                       |                           |
|-----------------------|---------------------------|
| SEUDONIMO -           | Digitalki sinatuta        |
| 074G0041 -            | norengandik: SEUDONIMO -  |
| UDALTZAINGOA          | 074G0041 - UDALTZAINGOA   |
| POLICIA LOCAL (FIRMA) | POLICIA LOCAL (FIRMA)     |
|                       | Data: 2025.12.03 08:58:38 |
|                       | +01'00'                   |

**LURRALDE BATZORDEA.-**

## I ERANSKINA

### 1. artikulua.

Udal ordenantza honen xedea Bergarako udalerriko hiri bideetako trafiko arloa arautzea da: Hala nola, besteak beste, aparkatzea, zirkulazioa, oinezkoen eskubideak, ingurumen-baldintzak eta egiten diren trafiko arau-hausteak arutzea.

Ordenantza hau interpretatu eta aplikatzeko araudi aplikagarria ondorengoa da:

- Uztailaren 25eko 18/1989 Oinarrien Legea (Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazio nahiz eta Bide Segurtasuneko Oinarriei buruzko Legea);
- Urriak 30eko 6/2015 Errege Dekretu Legegilea, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena;
- Azaroko 21eko 1428/2003 Errege Dekretua (Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartzen duena);
- Eta aplikagarriak diren gainontzeko xedapenak.

### 4. artikulua.

Debekatuta dago aparkatzea:

- a) Baimendutako ordutegiaren barruan zama-lanak egiteko guneetan.
- b) Elbarrien erabilera eskusiborako seinalizatutako guneetan.
- c) Espalioen gainean, pasealekuetan eta oinezkoak pasatzeko gainerako guneetan.
- d) Behar bezala seinalizatutako pasabideetan.
- e) Bigarren ilaran.
- f) Z/B seinalizatutako guneetan (Zaborra/Basura).
- g) Behar bezala seinalizatuta eta mugatuta dauden garraio publikoaren geltokietan.
- h) Larrialdi eta segurtasun zerbitzuentzat eta zerbitzu ofizialentzat berariaz erreserbatutako tokietan.

Kapitulu honetan aipatutako atalei dagozkien arau-hausteak larritzat hartuko dira, c) kasuan izan ezik, betiere oinezkoak pasatzeko leku nahikoa utziz gero. Oinezkoak pasatzeko leku nahikoa" kontzeptua zehazteko, 1,80 m-ko gutxieneko pasabide librea gomendatzen da, irisgarritasun estandarrekin bat etorriz. Lekuaren berezitasunaren arabera, 1,50 m-ko pasabide librea izan daiteke gutxieneko onargarria tarte laburretan.

### 11. artikulua.

Debekatuta dago bizitegi-eremu urbanoko aparkalekuetan 3. kategoriko ibilgailuak, ibilgailu bereziak, nekazaritza-erabilera edota obra publikoetakoak, karabanak, atoiak eta erdiatoiak aparkatzea, horretarako baimendutako guneetan edota baimendutako ordutegiaren barruan zama-lanak egiteko izan ezik. Debeku hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

### 12. artikulua.

Zama-lanetarako ordutegi orokorra 6:00etatik 22:00etara izango da astelehenetik ostiralera, larunbatetan, berriz, 6:00etatik 14:00etara. Udalerriko lekuaren behar bereziei egokitutako zama-lanen kasuan, gune bakoitzaren ordutegia Alkateak ebazpen bidez ezarriko du. Ordutegi hau ez errespetatzea arau-hauste arintzat hartuko da.

#### **15. artikulua.**

Horretarako gune jakinak ez dituzten bide publikoetan, hiru metrotik gorako zabalera duten espaloi eta ibilbideetan aparkatu ahal izango dute motozikletek, beti ere motorraren egonkortasuna eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko moduan egiten bada. Espaloiko sarbide irisgarriak eta irisgarritasun-elementuak (arrapalak, ibilbide babestuak) errespetatuta. Eraikinen fatxadaren kontra aparkatu ahal izango da soilik espazio hori pasalekua ez dela nabarmena denean, irteerarik gabeko pasaleku bat denean adibidez.

#### **16. artikulua.**

Ibilgailuak eta motozikletak ibiltoki, irlatxo, espaloi, eskailera, gune berde edota oinezko guneetatik zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

#### **18. artikulua.**

Semaforoko seinaleak ez errespetatzea arau-hauste larritzat hartuko da. Larrialdi-zerbitzuek soilik izango dute salbuespena, seinale optiko eta akustikoak aktibatuta eta arriskua minimizatuz.

#### **27. artikulua.**

Udalak ibilgailuen zirkulazioa eta ibilgailu guztiak edo batzuk aparkatzea erabat edo partzialki debekatutako kaleak edo herri barruko bideak dira oinezkoek lehentasuna duten guneak.

Bergarako Udalak oinezkoek lehentasuna duten guneetarako sarbideak kontrolatzeko sistemak ezarri ahal izango ditu. Hala, bideozaintzako sistema bat ezarri ahal izango du, i. eranskinean zehaztutako oinezkoentzako eremuetara sartzen eta irteten diren ibilgailu guztien matrikulak erregistratuko dituzten kameren bidez. Beste baliabide tekniko batzuk ere instalatu ahal izango ditu (giltzak, agintegailu automatikoak, txartel magnetikoak...)

Ezarri beharreko kontrol-sistema eta hura ezartzeko eta jarraipena egiteko beharrezko neurriak Alkatetzaren Dekretu bidez hartuko dira, Udaltzaingoa proposamen teknikoa egin ondoren.

Ezarritako mugapenak dinerak direla, ez dute eraginik izango honako ibilgailu hauen zirkulazioan.

1.- Su-hiltzaile, polizia eta anbulantzia ibilgailuetan eta oro har, zerbitzuak emateko baimendutako ibilgailuetan.

2.- Zerbitzu publikoa ez izan arren, premia larriko matxurak (ura, elektrizitatea....) oinezko guneke edozein etxebizitzatan edo lokaletan.

3.- Gaixoak edo ezinduak garraiatzen dituztenak.

4.- Gunean dagoen garaje edo baimendutako aparkalekutik datozenak

5.- Udalaren ebazpen justifikatuak berariaz debeku horretatik kanpo utzi dituen ibilgailuak.

Udalak oinezkoen guneetan ezarritako mugapen guztiak edo batzuk betetzetik libre utz ditzake zenbait ibilgailu, baldin eta arrazoi justifikatuak badaude.



Ibilgailuentzat debekatutako zirkulazioa seinaleztatua dagoen guneeetatik zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

Datu pertsonalen tratamendua (ibilgailuen matrikulak) interes publikoan eta botere publikoen egikaritzean oinarrituta egingo da, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta RGPD betez. Udalak: (I) tratamenduaren jardueren erregistroan alta emango du; (II) sarrera guztietan informazio-plakak jarriko ditu (arduraduna, helburua, eskubideak egikaritzeko bidea eta informazio osagarriko URLa/QR-a); (III) kontserbazio-epeak mugatuko ditu (adibidez, 30 egun, salbu espedienteetan luzatu behar bada); (IV) sarbide-kontrol zorrotza eta segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzazkoak ezarriko ditu; eta (V) datuen erabilera trafikoaren kudeaketara eta sarbideen kontrolera mugatuko du, legez baimendutako komunikazioetan salbu.

Baimenak emateko prozedura sinplifikatua ezarriko da (egoiliarrek, merkataritzak, zerbitzuak), eta baldintzak eta epeak udal webgunean argitaratuko dira.

## 28. artikulua.

Ibilgailuak ausarkeriaz gidatzea arau-hauste oso larritzat hartuko da. 'Ausarkeriaz gidatzea', gutxienez, honako egoera hauek gertatzen direnean izango da: (I) segurtasun-tarteak nabarmen ez errespetatu eta arrisku zehatza sortzea; (II) maniobra debekatu errepikatua eginez pertsona edo ondasunei arrisku larria eragitea; (III) baimendutako abiadura %50ean eta, aldi berean, 30 km/h baino gehiago gainditzea eremu sentikorretan (eskolak, oinezko guñeak).

Ibilgailuak zabarkeriaz gidatzea arau-hauste larritzat hartuko da. 'Zabarkeriaz gidatzea' seinaleak ez errespetatzeko hutsegite isolatuak edo arreta faltak, arrisku moderatua sortzen dutenean izango da.

## 31. artikulua.

Monopatinak, patinak edo antzeko aparailuak erabiltzen dituztenek ezin izango dute galtzadatik zirkulatu, horretarako espreski ezarritako gunee, bide edota hauen zatiak ez badira behintzat.

Espaloi edo oinezko guneeetan oinezkoen abiaduran soilik zirkulatu ahal izango dute, baina inoiz ere ez beste ibilgailuren batek erremolkatuta.

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek (patinete elektrikoak) bidegorritik edo galtzadatik zirkulatuko dute. Espaloi edo oinezko guneeetan **oinezkoen abiaduran soilik zirkulatu ahal izango dute.**

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen zirkulazio baldintzak onodrengoak izango dira:

1. Une oro errespetatu beharko dira Zirkulazioko Udal Ordenantzan eta trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloan indarrean dagoen gainerako araudian ezarritako zirkulazio-arau orokorrak.
2. Debekatuta dago aurikularrekin, kaskoekin edota bestelako gailu mugikorrek erabiliz zirkulatzea.
3. Debekatuta dago erregelamendu bidez ezarritako alkohol-tasak gaindituta edo drogen eraginpean zirkulatzea.

4. MPlakin zirkulatzeko gutxieneko adina 14 urte da.
5. Nahitaezkoa da argiak erabiltzea eguzkia sartzen denetik irten bitartean eta ikuspen gutxiko baldintzetan.
6. Debekatuta dago gidaria ez den beste inor ibilgailuan garraiatzea.
7. Nahitaezkoa da kaskoa eta atzeko argia erabiltzea.

Artikulu honetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

### **32. artikulua.**

12 urte edo gutxiago dituzten umeek espalo, anden eta pasealekuetatik zirkulatu ahal izango dute patin, monopatin, patinetearekin, bizikleta, triziklo eta antzekoekin, beti ere oinezkoen abiadurara egokituta.

Bizikletek atoi bat edo erdi-atoi bat eraman ahal izango dute, 1428/2003 Errege Dekretuaren 12. artikuluko 4, 4.1 eta 4.2 idazatietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (zirkulazio-araudi orokorra) eta atoiaren pertsonak eraman ahal izango dira. Gauza bera aplikatuko da hiriko bideetan zirkulatzen duten motor-bizikleta, hiru gorpildun ibilgailu, ziklomotore eta zikloendako ere.

Adingabeen segurtasunerako, heldu baten zaintza gomendatzen da trafiko intentsitate handiko eremuetan.

### **35. artikulua.**

Oinezkoek ezingo dute gainontzeko oinezkoak gogai ditzaketen lasterketa edota jokoak egin. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

Jarduera antolatuak (kale-animazioa, kirol-probak) alde zurretik baimenduko dira, ibilbide eta ordutegi jakinekin, zirkulazioa eta irisgarritasuna bermatuz.

### **36. artikulua.**

Fardelak, otarrak eta bestelako edozein gauza garraiatzen dituzten oinezkoek espaloitik ibili beharko dira eta gainontzeko oinezkoen zauriak, kolpeak edo eragozpenak ez eragiteko behar diren neurri guztiak hartuko dituzte. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.

Irisgarritasun-bideak eta pasabide libreko gutxieneko zabalera (1,80 m gomendatua, eta 1,50m gutxiengoa) errespetatuko dira.

### **44. artikulua.**

Debekatuta dago bide publikoetan ibilgailuak garbitzea, koipeztatzea edo konpontzea. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

Salbuespen gisa, larrialdiko konponketa txikiak onartuko dira zirkulazioa/segurtasuna bermatzeko, arriskua desagertu arte. Ondoren eremua garbi utzi beharko da.

#### **48. artikulua.**

Agintaritzaren Agentei desmen egitea edo errespetu falta agertzea arau-hauste larritzat hartuko da eta arau-hauste oso larritzat hartuko da desmen egiten jarraitzen bada.

Gertakarien akta zehatza egingo da (denbora, leku, jokabidea), eta, proportzionaltasuna bermatzeko, posible denean, grabazio edo lekukotza dokumentala erantsiko da.

#### **50. artikulua.**

Etxean lehen jakinarazpena jaso eta 20 eguneko epearen barruan isuna ordaintzeak %50eko beherapena ekarriko du.

%50eko murrizketa onartzeak administrazio-bidea amaitutzat jotzen du eta gertakarien/erantzukizunaren aitortza dakar; ondorioz, murrizketa aplikatu denean ezingo da ondorengo alegaziorik edo errekurtsorik aurkeztu.

### **1. ERANSKINA**

*Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, oinezkoek lehentasuna duten gunetzat hartuko dira Udallerriaren eremu hauek:*

- *Irala kalea*
- *Barrenkalea*
- *San Martin Plaza*
- *Artekalea*
- *Goenkalea*
- *Arruriaga kalea*
- *Juan Irazabal pasealekua*
- *Espoloia*
- *Ikerleku kantoia*
- *Iparragirre kalea.*

#### *Irala kalea*

*Zirkulazioa astelehenetik igandera 07:00etatik 13:00etara baimenduko da. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailuetako bat eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)*

#### *Barrenkalea*

*Zirkulazioa astelehenetik ostiralera 07:00etatik 13:00etara baimenduko da. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailu guztiek eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)*

#### *San Martin Plaza*

*Zirkulazioa astelehenetik ostiralera 07:00etatik 13:00etara baimenduko da. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. 13:00etatik aurrera, plazan aparkatzeko baimena duten Udal langileak Komenio kaletik sartuko dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailu guztiek eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)*

### Artekalea

Zirkulazioa astelehenetik igandera 09:00etatik 14:00etara baimenduko da. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailu guztiek eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)

### Goenkalea

Zirkulazioa astelehenetik igandera 09:00etatik 14:00etara baimenduko da. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailu guztiek eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)

### Arruriaga

Zirkulazioa astelehenetik igandera 09:00etatik 14:00etara baimenduko da. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailu guztiek eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)

### Juan Irazabal

Behar zehatzetarako eta aurretiazko baimenarekin ahalbidetuko da zirkulazioa.

### Espoloia (plaza)

Zirkulazioa astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara baimenduko da zama lanetarako soilik. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailuetako bat eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)

### Ikerleku kantoia

Zirkulazioa astelehenetik ostiralera 07:00etatik 13:00etara bertako komertzioetarako zama lanak egiteko soilik. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailuetako bat eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)

### Iparragirre kalea

Zirkulazioa astelehenetik ostiralera 07:00etatik 13:00etara bertako komertzioetarako zama lanak egiteko soilik. Ordutegi horretatik kanpo sartzeko baimena duten bizilagun eta komertzioek zama lanak egiteko geldialdiak egin ahalko dituzte. Geldialdi horiek gehienez 30 minutukoak izango dira. (etxebizitza horretan errolda fiskala duten ibilgailuetako bat eta komertzio bakoitzeko ibilgailu bat)